

Kutxabank Plus 7, Pentsio Fondoa

Inbertsio-politika

I) PENSIO FONDOEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA.

Pentsio Plan eta Fondoaren araudiarekin bat etorrira, inbertsio-politikaren printzipioak ulertarazteko adierazpena jasoko da, idatziz.

Pentsio Fondoaren inbertsioak, euren inbertsio-politika zeinahi delarik ere, merkatuaren gorabeheren eta balore-inbertsioari lotutako bestelako arriskuen menpe daude. Ondorioz, partaideak jakitun izan behar du partaidetzaren likidaziozko balioak gorabeherak izan ditzakeela: nola goranzkoak, hala beheranzkoak.

Seihileko txostenen ikus daiteke Fondoaren zorroaren osaera zehatza.

II) PENSIO FONDOAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK.

Erakunde kudeatzailea: KUTXABANK PENSIONES, S.A.U.

Gordailuzaina: CECABANK, S.A.

III) PENSIO FONDOAREN INBERTSIO-POLITIKA.

a) Fondoaren ezaugarriak

Fondoa, hain zuzen, Errenta Finkoko Fondoa da.

b) Kudeaketa-helburua

Fondoaren inbertsio-politikaren helburua, zehazki, partaidetza bakoitzarentzat balio jakin bat lortzea izango da, aurretik finkatutako denbora-tarte batean. Nolanahi ere den, partaideak lortuko duen errentagarritasuna partaidetza bakoitzak sinatutako likidaziozko balioaren arabera izango da.

c) Inbertsioak aukeratzeko eta banatzeko irizpideak

Fondoak, hain justu, Europar Batasunean kaudimen handiko jaulkitzaileek jaulkitako errenta finkoko titulu publiko zein pribatuetan inbertituko du bere ondarearen zati handiena.

Fondoaren ondarea osatuko duten errenta finkoko tituluak Europar Batasuneko herrialdeetako merkatu antolatuetan kotizatuko dute.

Errenta finkoko aktiboak estrategikoki kokatuko dira, kudeaketa-helburuarekin modu koherentean.

Fondoak, aukera eta interesa dagoen guztietan, bere ondarearen zati bat inbertituko du Europar Batasuneko Estatu-kideren batek, Autonomia Erkidegoek, Espainia kide den Nazioarteko Erakundeek eta ELGako beste Estatu-kide batzuek jaulkitako baloreetan.

d) Inbertsioekin lotutako arriskuak neurtzeko eta kontrolatzeko metodoa

Errenta finkoko zorroa, hain justu, investment grade baino txikiagoa ez den ratinga duten erakundeek jaulkitako tituluak osatuko dute (edo Espainiako Erreinuko ratinga baino txikiagoa ez dutenak, baldin eta hau investment grade-rena baino txikiagoa bada). Nolanahi ere den, dagokion aktiboa eskuratu ostean gertatutako rating-aldaketa guztiek ez dute ekarriko, derrigorrean, saltzeko premiarik.

Modu gehigarrian, xedatutakotik beherako rating-tituluak eskuratu ahal izango dira, baldin eta kaudimen-baldintzei buruzko araudi espezifikoa betetzen bada, eta betiere, indarrean dagoen legediak xedatutako mugekin bat etorrira, eta era honetako aktiboek Planaren zorroaren % 10 baino gehiago osatu gabe.

Nola erakunde kudeatzaileak, hala gordailuzainak, erregularitasunez zainduko dute Fondoaren inbertsioen ratinga, eta baita arrisku-diferentzial edo *spread* deitutakoen bilakaera ere.

Errenta finkoko aktiboetan inbertitzeak interes-tasaren arriskua ekarriko du berarekin.

e) Kutxabank Plus 7 Pentsio Planeko partaideentzat Itxarotako Errentagarritasunaren urteko helburua

Kutxabank Plus 7 Planak errentagarritasun ez-bermatuaren helburutzat dauka, hain zuzen, aurreikusitako denboraldiaren amaieran (2025eko uztailaren 30), denboraldiaren hasieran (2015eko urtarrilaren 30) partaidetzak duen balioarekin alderatuta, % 23,12ko balio-handitzea (% 2,00ko UTB) lortzera bideratutako inbertsio-politika bat garatzetik erdietsitakoa.

f) Inbertsio-politikaren indarraldia.

Inbertsio-printzipioen adierazpen hau 2020ko martxoaren 20tik aurrera aplikatuko da.